



## Carlos Peñak gainditu du Argentinako Chiquita itsasoan azken erronka

**TOLOSA ▶** Igandetik astelehenera bitarteko gauean amaitu zuen proba, 3 etapa burutu ostean

**ZAILTASUNAK ▶** Bere bizitzan zeharkatu duen urazalik gogorrenetakoa izan dela dio ▶ 2



Peña lorpenaren ostean. HITZA



## Kirolen festa handia Usabalen, III. Euskal Kirolaren Egunean

**TOLOSA ▶** 5.000 lagun inguru bildu ziren Usabal kiroldegian herenegun, III. Euskal Kirolaren Egunean. 26 kirol gauzatu ziren denera. Antolatzaileak «oso gustura» azaldu dira. NEREA LIZARTZA ▶ 4

**TOLOSA ▶**

**Larretxeak  
hirugarren  
txapela  
jantzi du**

Azken urteetako final  
«tristeena» izan zen  
igandekoa ▶ 3

**ZIZURKIL ▶**

**Balantze  
positiboa  
IX. Azoka  
Bereziaz**

Lesmes Mujikak  
irabazi du postu  
onenaren saria ▶ 5



ALDIZKARIAK eta PRENTSA

ROSS  
LIBURUDENDA

Tel.: 943 65 14 73 • S.Frantzisko • TOLOSA

## KIROLAK ▶

## IÑIGO ASENSIO

Carlos Peña igerilari eta abenturazale tolosarrak Argentinako Chiquita itsasoa zeharkatu zuen igandetik astelehenerako gauean «gogortasunak eta itsasoaren baldintzek bereziki zaila» egin duten bere azken abenturan.

3 etapa behar izan ditu Peñak Chiquita itsasoaren 70 kilometrotan barrena, Miramar hiri argentinarretera heltzeko. «Nere bizitzan zeharkatu dudana urazalik gogorrenetakoa izan da. Olatuak hain ziren handiak ezen nire lagunaren kajakak ez bainuen ikusten». Jesus Ramirez iruindarra izan du bidai lagun azken abentura honetan eta biek kezkatu xamar ekin zioten Chiquita itsasoa zeharkatzeari. «Bertako ministeritza baten baimena behar genuen igerian hasteko eta beharrezkoa zen mediku bat gurekin etortzea. Bertako medikuek ez zuten parte hartu nahi, itsaso horretan jende askok bizitza galdu zuela eta erokeria hutsa zela zioten», kontatu digu Peñak. «Ulertzekoa da. Behin amaituta gu ere konturatu gara arriskuaz, baina bizitza osoa daramat arrisku handiko probak burutzen eta hau beste bat izan da. Egia da, hala ere, uste baino gogorragoa suertatu dela» onartzen du tolosarrak.

Azkenean Cordobako Euskal Etxearen bitartez mediku bat lortu eta ostiralean ekin zioten lehen etapari. Bidela-gun, zodiak baten, itsas patroibat, medikua eta Cordobako Euskal Etxeko ordezkaria, Ramon Agirrezabal bergararra, izan zituzten. 7 ordu igerian aritu eta gero, kostako aterpe-txe batean egin zuten lo. «Lehe-

# Carlos Peñak azken abentura amaitu du: Chiquita itsasoa

Bere bizitzan zeharkatu duen urazal «gogorrenetakoa» izan dela zihurtatu du Carlos Peña igerilari tolosarrak



Pozik dago Carlos Peña Chiquita itsasoa zeharkatu ondoren. HITZA

nengo etapa benetan gustura egin nuen. Urdaila babesteko hartutakoarekin, ureko gatza ez ze arazo izan, eta bikain aritu nintzen igerian», dio tolosarrak.

Bigarren etapa izan zen arazo gehien eman zizkiena. Gatzaz babesteko, bisutaren aurkako betaurrekoak erabili zi-

tuen. Eguraldi txarraren ondorioz betaurrekoak lurrunez-tzen zitzaizkion eta horregatik itsututa egin behar izan zuen igeri. «Txutxok (Jesus Ramirez) oihuka gidatzen ninduen olatu artean baina itsasoak kostaldera bultzatzen gintuen eta behar baino askoz kilometro gehiago egin genituen. Unerik

zailenak izan ziren. Olatuak ikaragarriak ziren, itsututa, itsasoak bere kasa generamala... odisea bat izan zen», dio behin guztia amaitu dela. Hirugarren etapa ere ez zen erraza izan, baina Miramar ikuspegiaren zutela, «errazago» egin zuen igeri Peñak. «Zortzi ordu-tan aritu nintzen oso ermittu altuan. Bukatu beharra zegoen eta amaiera gertu ikusteak beti laguntzen du, baina hirugarren etapa ere gogorra egin zen».

Chiquita itsasoa zeharkatu du, eta bere lorpen zerranda luzeari gehitu beharreko abentura izan da Argentinakoa. Pozik dago izandako harrerarekin. Datorren egunetan Argentinako Euskal Etxeen Astea ospatuko da eta tolosarrak ekintza horien baitan burutu du azken erronka hau. «Datorren astean Ibarretxe Euskal Autonomia Erkidegoko Lehendakaria etorriko da ospakizun hau dela-eta. Jendea pozik dago egindakoarekin eta orain egun batzuk izango ditugu atsedean hartu eta hemengo euskaldunekin egoteko» dio tolosarrak. Oraindik ezer aipatu nahi ez duen arren baditu buruan proiektu berriak Carlos Peña abenturazaleak.

## KIROLAK ▶

## Asteburu honetan ere norgehiagokak Tolosa Kup-en

## I.ASENSIO

Asteburu honetan ere jokatu dira Tolosa Kup-eko hainbat eta hainbat partida. Larunbatean 5 partida jokatu zituzten. Errekaldek 5-1 irabazi zuen Papa Movil-en aurka. Ekaitz eta Amarozen 3na berdindu zuten. I strawberry taldeak 4-0ekoarekin gainditu zuen Makala. Uzturrek 2-8 galdu zuen Txikiteroaren aurka eta 30 xentimo taldeak 2-1 irabazi zien No somos nadie taldeko jokalariei.

Igandean 4 partida izan ziren jokoan. Lehena, Baktxus eta Txoko txikiren artekoa, azken hauek irabazi zuten 1-3koarekin. Bikutzek 2-0 irabazi zuen Itzuliren aurka, Samberoakek 6-3 Rayoren kontra, eta Itaie 5-0 gailendu zen Ordago taldearen aurka-ko lehian.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
  - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernaldea. Medikua: 65 23 39
  - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
  - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
  - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
  - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
  - ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
  - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
  - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
  - ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
  - ▶ Orendain. Medikua: 655595
  - ▶ Oresa. Medikua: 682228
  - ▶ Tolosa.
    - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amarozenko dispen.: 672637
    - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
    - ▶ DYA: 672536
    - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- ### Garraioak.
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzarano autobus.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

## GIZARTEA ▶

## Tolosatik argazki onenaren bila

I. Asensio ▶ Igandean egin zuten Antonio Elesperen oroimenezko 28. argazki rallya. 30 parte-hartzaile inguru izan zituen topaketak. 09:30ean bildu eta rallyaren 6 gaietako 5 jakinarazi zizkieten argazkilariei. Oria ibaia, alde zaharra, Zaballarreta eta Gernikako arboleko lorategiak, Tolosako hainbat eraikin eta erretratua txapelarekin izan ziren finkaturiko gai horiek. Azken gaia, izkutukoa, lehiaketaren amaiera aldera ezagutarazi zuten: Jokin Bildarrazat alkatea. M. SOROA



EUSKAL HERRIKO AIZKOLARI TXAPELKETA ▶

# Larretxeak hirugarren txapela irabazi du Tolosan

Azken urtetako finalik tristeena izan zen, jende gutxi bildu baitzen plazan

**NAIARA GARZIA**

Donato Larretxeak Euskal Herriko Lehenengo Mailako Txapelketako hirugarren txapela irabazi zuen igandean Zezen Plazan. Azken urte hauetan ospatutako txapelketarik tristeena izan zen igandekoa, ez baitzuen jendearen aldetik harreara gehiegi izan. Alde batetik, plazara bertara hurbildu zirenak gutxi izan ziren, 500 pertsona inguru, eta bestetik, telebistan bota ez zuten, etxetik ere ezin izan zen Txapelketa jarraitu. Ohiko 6 finalisten ordez, 5 aizkolari soilik egoteak ere finalari xarma kendu zion.



Donato Larretxea lehenengo saria jasotzen, herenegun, Tolosako Zezen Plazan. N. LIZARTZA

**SAILKAPENA ▶**

1. Donato Larretxea (39:53).
2. Olasagasti (44:15).
3. Azurmendi (48:05).
4. Txapartegi (51:22).
5. Barberena (1h03:38).

Bakoitzak lau kana-erdiko, lau 60 ontzako eta lau oinbiko moztu behar izan zituen. Enborra oso gogorra atera zen eta honek aizkolarien lana zaildu egin zuen.

Aizkora zaleek Larretxea eta Olasagastiren arteko lehia espero bazuten ere, Arantzako aizkolaria hasieratik aurrera hartu zuen. Igeldoko aizkolaria, berriz, erabatean bigarren postuan mantendu zen. Hirugarren postuari dagokionez, lehenengo oinbikoan Txapartegi (51:22) Azurmendiren (48:05) aurretik bazihoan ere, bigarren oinbikotik aurrera Arriarangoak hirugarren postua bereganatu eta mantendu egin zuen.

KULTURA ▶

## San Esteban auzoko Kultur Astea partaidetza handiarekin amaitu da

Kultur Astearen barruan Zuberoa auzunearen 50. urtemuga ospatu zuten herenegun

**N. GARZIA**

San Estebango Kultur Astearen barruan herenegun ekitaldi berezi bat ospatu zuten. Kolumna Sagardia izeneko etxeen 50. urtemuga, hain zuzen ere. Gaur egun beste izen batekin ezagunak diren etxebizitzak hauek —Zuberoa auzunea— duela 50 urte eraiki zituzten. Garai hartan bertan bizitzen jarri ziren bizilagunetatik asko

jada ez daude, beste asko oso helduak dira eta gainerakoak beste etxe batzuetara joan dira bizitzera, duela gutxira arte ez baitzeuden behar bezala egokituak; «gaur egun, ordea, 4 etxebizitzetatik hirutan igogailua jarri dute».

Garai hartako jabeen izenak artxibotik atera zituzten eta auzoaren argazki zahar handi bat jarri zuten ikusgai, bizilagunen izenak gainean zituela. Haien

oparia izan zen, Zuberoa auzunearen 50. urtemuga gogora ekartzeko modu paregabea.

Kultur Astearen barruan urtero bezala, bazkaria egin zuten. Halere, beti babarrun jatea egiten duten arren, aurten 50. urtemuga bereziki azpimarratzeko zikiro jatea egitea pentsatu zuten. Umeentzako ere asteburuan zehar jolasak prestatu zituzten, eta igandean puzgarriekin «hagitz ederki» pasa zuten.

Oihana Sanchez bizilagunen elkarteko kidearen ustez «aurten jendearen harrera aurreko urteetan baino hobea izandu da». Bazkaria amaitu ondoren, urtero bezala, dantzaldia egin zuten. Gainera auzoko kaleetan zehar kalejiran ibili ziren festa giroan, azkeneko urteetan galduta zegoen ohitura hau denon artean berreskuratzu.



Kultur Asteko azken eguneko zenbait ospakizun. N. LIZARTZA

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheak  
**TOLOSA**  
 Tel.: 943 65 50 37  
 Faxa: 943 65 09 44  
 e-maila: enria@inmoenria.com  
 www.inmoenria.com

**Amezketza.** Eraikuntza nahiko berriko etxebizitza, logela, sukaldea, egongela eta komunarekin. Igogailua eta berokuntzarekin. 150.250 euro.

**Anoeta.** 3 logela, sukaldea, egongela eta gainugela. Dena kanpoaldera. Bizitzen jartzeko.

**Asteasu.** Eraikuntza nahiko berriko etxebizitza, lokal-garaje eta lursailarekin.

**Irura.** Etxezarreta, 3 logela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Garajea aukeran.

**Ibarra.** San Inazio. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin.

**Leaburu bidean.** 600 m2ko pabiloia alokairuan, bi solairuetan banatua, 2.500 m2ko zelaiarekin.

**Berrobi.** Estilo rustikoan (aldizkarietan bezala!). 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.

**Amezketza, Berastegi, Gabiria, Hernialde, Ibarra.** Hainbat etxe bifamiliar, eta abiki, eraikuntza berrikoak eta bigarren eskukoak.

**Ibarra.** Julian Gayarre. 2 logela, sukaldea, sala eta bainugela. Berokuntzarekin. Ezin hobeto. 239.805 euro.

**Tolosa.** Eraikuntza berriko hainbat etxebizitza. 2, 3 eta 4 logela aukeran. Garajeekin.

**Tolosa.** Beotibar. 36 m2. Altua, 150.000 euro.

**Tolosa.** Alde Zaharra, 2 logela, sukaldea, egongela, eta bainugela. Hainbat berrikuntza. 168.285 euro.

**Tolosa.** Berazubi. Berritzeko aukera anitzak. Igogailu proiektua onartuta.

**Tolosa.** Siervas de Jesus. 3 logela, sukaldea, egongela, eta 2 bainugela.

**Tolosa.** Zumalakarregi. 92m2. 3 logela, 2 bainugela. Guztiz berritua. Estreinatzeko. Garajearekin.

**Tolosa.** La Estrella. Oso egoera onean. Igogailu eta garajearekin.

**Tolosa.** Isaac Lopez Mendizabal, 4 logela. Igogailu eta garajearekin. Egoera ona.

**Villabona.** Kale Berria. Eraikuntza berria. Pisu altua. 100 m2. Garaje ibxia. **Legorreta.** Trastelekuia salmentan. Bizikleta edo motorrentzat egokia.

## EUSKAL KIROLAREN III. EGUNA ▶



**Judoa.** Igande goizean, 10:00etatik 11:30etara, Judo, aikito, jiu-jitsu, kendo eta wu-shu erakusketa emanaldia izan ziren. NEREA LIZARTZA



**Hockey-a.** 11:00etatik 13:00etara bitarte, hockey emanaldiak izan ziren, honez gain, jolasen gune bat ere egon zen. NEREA LIZARTZA



**Eskalada.** Usabal kiroldegiaren kanpo aldean, eskalatzeko aukera izan zuen jendeak. NEREA LIZARTZA



**Golf-a.** Goizean, joko luzean, joko ertainean nahiz hurbiltzekoan, eta laburrean ibili ziren. N. LIZARTZA



**Surf-a.** Goiz osoan zehar, surfeko pelikulen emanaldia eta haurrentzako surf-taula egon ziren. N. LIZARTZA

# Festa eta kirola uztartuz, Usabalen

Herenegun, Euskal Kirolaren III. Egunean 5.000 lagun inguru bildu ziren; denera 26 kirol gauzatu zirelarik

## ESTI EZEIZA

Errugbia, pilota, squash-a, surf-a, piraguismoa, karatea eta beste hainbat kirol ezberdin jokatu ziren herenegun Usabal kiroldegian. Euskal Kirol Federazioaren Batasunak antolatuta, bertan ospatu baitzen Euskal Kirolaren III. eguna.

Antolatzaileek agertutako

datuen arabera, 5.000 pertsona inguru bildu ziren igandeko ekitaldian. Kirol eta jai jardunaldi parte-hartzaile eta herriko honen helburuetako bat, kirola gizarteratzea, eta aldi berean, «federatutako euskal kirolari merezi duen aitortpena egitea da». Honekin batera, ospakizunaren beste xedeetako bat, «Euskal Selekzioetako nazioarteko eremuari dagokion

bere kirol modalitate ezberdinetan ordezkaritza ofizial baten aldarrikapena indartzea da».

Hiru aldiz ospatu da jaialdi hau, eta dagoeneko indarra hartu du, eta oinarri sendoa du. Tolosako ospakizuna amaituta, «sentsazio onarekin» geratu ziren Euskal Kirol Federazioaren Batasuneko kideak. Ruben Bueno gerenteak azal-

du duenez, «oso gustura» geratu dira egindakoarekin eta jende askok hartu du parte, «5.000 lagun inguruk gutxi gorabehera».

Kiroldegiaren barnealdean nahiz kanpoan gauzatu ziren kirolak. Hala, batzuetan, erakustaldiak izan ziren, beste batzuetan ikastaroak, eta zenbaitetan, norgehiagokak. Horren adibide, gimnastikan Euskal Ligako Lehiaketa jokatu zen, eta esgriman eta halterofilian ere bai. Bestalde, gertaeraren jolas helburuari lotuta, jardunaldia fanfarreen bidez zuzpertzutuz. Honekin batera, Usabal Kiroldegiaren barnealdean, jolasak, ohiko produktuak dastatzeko txosna bat, hala nola, Euskal Kirol Federazioen Batasunaren arropa nahiz produktuak saltzeko denda ere izan ziren.

## Aurtengo berrikuntzak

Edizio honetako berrikuntza gisa, atxikitako jardunaldi bat izan zen. Hala, larunbatean, bi ekintza nagusi gauzatu ziren: alde batetik, Euskal Ligari dagoen gimnastika lehiaketa egin zen. Eta bestetik, beterranoen saskibaloitopaketak, Euskadi eta Kataluniako selekzioen artean. Jende ugari bildu zen larunbat arratsaldean norgehiagoka berezi hau ikusteko, eta «etxeokak» animatzeko. Partidaren azken emaitza 90-100 izan zen, kanpokoek irabazi zutelarik. Hala ere, jendea gustura atera zen ikuskizunetik. Jokalarien artean, izen handiko kirolariak aritu ziren lehian, horien artean: Betolaza, Davalillo, Mendiburu, Solozabal eta Creus saskibaloio jokalariek.

ZIZURKIL ▶ IX. AZOKA BEREZIA

# Balantze «oso ona» egin du Udalak azoka bereziaz

Iruña baserriko Lesmes Mujikari eman zioten postu onenaren saria

IMANOL GARCIA

Balantze «oso ona» egin du Zizurkilgo Udalak herenegun egindako IX. Azoka Bereziaren harira. «Jende ugari» azaldu zen antolatzaileen hitzetan, batez ere eguerdi aldean eta baita arratsaldean ere. Iruña baserriko Lesmes Mujikak eraman zuen postu onenaren saria, eramandako produktuengatik eta postuaren apainketarengatik. Bestalde, Zizurkilgo Barrena Beka Maialen Azkue zizurkildarrak jaso zuen.

Haizeak, beraz, ez zuen zapuztu eguna, arazorik eman bazuen ere. Kanpoan jarri beharreko estalkiak kendu behar izan zituzten haizeak indartsu jotzen zuelako. Euria ez zen azaldu azken unera arte eta orduan ere tanta batzuk bakarrik bota zituzten lainoek. Aurreikusitako ordutegia bete ahal izan zuten.

Salmantei dagokionez, «gustura» zeuden bai baserritarrak bai artisauak ere. Zenbait artisauk, hala ere, zailagoa izan zuten beraien produktuak saltzea, egiten dituzten lanek prezio altua dutelako.

Azokaz gain antolatutako ekitaldiek ere «arrakasta» izan



Postu eta erosle ugari izan ziren herenegun Zizurkil Goian. NEREA LIZARTZA

zuten. Paellada herrikoian 160 lagunek hartu zuten parte, hau da, txartel guztiak saldu zituzten. Zimiteyua gainezka egon zen. Frontoia ere bete egin zen arratsaldeko bertso saioa ikusi eta entzuteko. Haurrek ere izan zituzten berentzako ekitaldiak. Goizean rokodromoan eta arku tiraketan eman zuten denbora. Arratsaldean, animala txikiekin aritu ziren jolasean. Ilarak sortu ziren, haur asko inguratu zirelako.



Marian Lazkano alkatea eta Maialen Azkue. HITZA

LESMES MUJIKARI ▶ BASERRITARRA

## «Natural egiten dugu dena, ximaurra bakarrik botatzen diogu lurrari»

Zizurkilgo Iruña baserriko Lesmes Mujikak (Zizurkil, 1931) jaso zuen herenegun postu onenaren saria.

**Ez da lehenengo aldia saria eskuratzen duzula, ezta?**

Hirugarren saria da. Bi urtez jarraian jaso nuen eta iaiz beste batek irabazi zuen.

**Pozik jasoko zenuen hau ere.**

Bai, pozik. Ez nuen espero. Errege sagar asko eta ederra eraman nuen, garbia. Babarrunak, intxaurreak, gaztaina, barrazkiak, sagardoa, irasagarra... ere bai. Genero asko eraman nuen.

**Zizurkilgo azoka berezi guztietan parte hartu duzu?**

Bai. Aurretik, 40 urtetan Donostiako Bretxa azokara joaten nintzen, baina badira hamar urte utzi niola joateari. Etxerako egiten duguna eramaten dut Zizurkilgo Azokara. Naturala egiten dugu dena, ximaurra bakarrik botatzen diogu lurrari.

**Azokarako prestaketak lan asko eskatzen du?**

Bai, hamabost egun aurretik gauzak prestatzen hasi beharra dago. Irasagarra egiten eta orduan hasten naiz.

**Urte asko eman dituzu azoketan produktuak saltzen.**

23 urterekin hasi nintzen Donostiako Bretxa azokara pro-



HITZA

duktuak eramaten. Hasieran astoan eramaten genuen tren geltokiraino. Gero esne-saltzailearekin eta arrain-saltzailearekin eramaten genuen. Azkenean, 42 urterekin karneta atera eta autoarekin eramaten nituen produktuak. Askok aldatu dira gauzak orduz geroztik.

ANOETA ▶

## EHNA tramitatu ahal izango da larunbatean

Anoetako Bai Euskal Herriari herri ekimenak herritarrei EHNA tramitatu ahal izateko aukera jarriko die hil honetako, azaroko eta abenduko azken larunbatetan. Horrela, lehen aukera hurrengo larunbatean, hilaren 28an izango da, udaletxean 11:00etatik 13:00etara. EHNA tramitatu ahal izateko errolda agiria (udaletxean eskatu beharrekoa), 3 argazki eta 15 euro behar dira. 15 urtetik beherakoek familia liburuaren fotokopia beharko dute. Bai Euskal Herriari ekimenak deia luzatzen die herritarrei EHNA tramitatu dezaten, «euskal herritar garen heinean naziotasun propio bat edukitzeko dugun eskubidearen harira».

VILLABONA ▶

## Ingelesko mintza praktikak egiteko aukera, gaur

Ingelesko mintza praktikak egiteko interesa duenak aukera izango du gaur, 18:30ean, Villabonako Amasa kafetegian elkartzeko. 943 69 41 10 telefono zenbakian eskura daiteke informazio gehiago. HITZAKO beste ale batean jarritako 943 69 31 73 zenbakiak ez du zerikusirik egitasmo honekin.



Koldo Mitxelena Kulturunea  
Urdaneta kalea 9 • 20006 DONOSTIA  
Tel.: 943 11 28 93  
programazioa@gipuzkoa.net  
www.gipuzkoa.net/kultura

### ERAKUSKETAK

*Mugako nire lagunei.  
Ipar Euskal Herria karlistadetan  
1833-1876*

**Ganbaran**  
Irailaren 13tik azaroaren 4ra

---

*Gure artea  
lehiaketako hautatuak.*

**Erakustaretoan**  
Urriaren 19tik urtarrilaren 5era

ORDUTEGIA  
asteartetik larunbatera:  
10:30-14:00 / 16:00-20:30  
astelehen, igande eta jaiegunetan itxita

## IKAZTEGIETA ▶ TXIRRINDULARITZA



Leire Olaberria «pozik» dago Bordelen lortutako garaipen eta emaitzekin. HITZA

# Leire Olaberriak bi proba irabazi ditu Grand Prix-ekoetan

Scratch-en eta danimarkarrean izan da txapelduna, eta laugarren egin du berez burutu beharrik ez zuen proban

## NEREA URBIZU

Leire Olaberria ikaztegi-tarrak Bordelen egindako probetan bi irabazi ditu asteburu honetan. L'humanite Sari Nagusian Scratch-eko proban garaile izan zen, eta baita danimarkar deuseztatzean ere.

500 metroetako proban laugarren egitea lortu zuen, nahiz eta berak proba hau ez prestatu. Leire Olaberriak esan zuenez «test moduan egin nuen, neure burua neurtzeko besterik ez». Frantziako Selektzio gogorarekin lehiatu behar izan zuen. Izan ere, «gogorra da, asko prestatzen direlako horretarako, abiadurako probarako, alegia». Olaberriak, gainera, bere marka hobetu zuen proba honetan: 38 segundu eta

8 ehunenatzen zuen marka, eta larunbatekoan 7 ehunen gutxiago egin zituen.

Ikaztegi-tarra «pozik» dago lortutakoarekin: «espero nuen maila on bat ematea, eta maila polita izan da, bai nire aldetik eta baita lehiaketan bertan ere». «Gainera», adierazi zuen txirrindulariak «frantziarrak oso onak dira, eta neure burua oso ondo ikusi nuen bai tekniki eta baita fisikoki ere: sentazio onak izan ditub».

Grand Prix proba ez da Eustrak-Duranguesado taldearentzat garrantzitsuena, baina «geure burua eta errendimendua nola dagoen ikusteko bali du, Munduko Koparako hila-bete bat falta baita, eta guretzat azterketaren antzeko zerbait da Bordelekoa».

Eustrak-Duranguesado taldean hiru lasterkari daude: Aitor Alonso, Unai Elorriaga eta Leire Olaberria bera. Hirurak

izan ziren Bordelen, baina Olaberria izan zen meritu gehien lortu zituena.

## Munduko Kopari begira

Valencian (Herrialde Katalandarrak) dago Leire Olaberria, bere taldearekin entrenamendua saioak egiten, ostiralera arte gutxi gorabehera. Bertan, hurrengo azaroaren 17tik 19ra bitarte jokatu beharko duen Munduko Koparako prestatzen ari da. Hau Sydney-en (Australia) izango da, Munduko Kopako lehen probak, hain zuzen. Bertan, Scratch, puntuazioa eta jazarpena egin behar izango ditu.

Abenduan Moskura joango da bigarren Munduko Kopako lehiak egitera, eta urtarrean, Los Angelesen (EEBB) egin beharko ditu hurrengoak. Munduko Kopakoekin bukatzeko, otsailekoa burutu beharko du.

## LEITZA ▶ POLITIKA

## Guardia Zibila Torrea tabernan sartu da

Espainiako Auzitegi Gorenak «inbentarioa» egiteko eskatu die batzorde judizialei



Torrea tabernan «inbentarioa» egiten hasi ziren atzo. JAIONE ASTIBIA

## ERREDAKZIOA

Atzo goizean zehar Leitzako Torrea tabernan Guardia Zibila sartu zen. Espainiako Auzitegi Gorenarengatik «Batasunaren lokalak zein ondasunen inbentarioa» egiteko agindua jaso zuten atzo batzorde judizialek eta «hauek babesteko» agertu zen Guardia Zibila. Batasunaren ilegalizazioa guztiz gauzatzeko ondasun horien likidazioa ezinbestekoa dela iritzi dio Gorenako 61. Salak eta horren harira hasi ziren atzo Hego Euskal Herriko hainbat herriko taberna ezberdinak miazten.

Espainiako Auzitegi Gorenak Nafarroako, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako herriko tabernetan lokalak eta ondasunen inbentarioa egiteko agindua eman zuen. «Herriko tabernekin legez kanpo dagoen Batasunarekin harremana dutenaren zantzuak daudelako» hartu du Salak neurri hori.

Dirudienez, Nafarroako herrikoetatik hasi ziren atzo «in-

betarioak egiten», horien artean, Leitzakoa. Hori dela eta, atzo goizean herriko plaza inguruan guardia zibil ugari zeuden. Nafarroan guztira zazpi lokaletan sartu ziren: Iruñean (Errotxapea auzoan bat eta bestea, dirudienez, Alde Zaharrean), Burlatan, Tuteran, Altsasun, Tafallan eta Leitza, hain zuzen. Egunkari honen edizioa itxi aurretik Tolosaldeko herriko tabernetan inbentariorekin egin edo Guardia Zibila sartu zen berririk ez zen jaso. Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako zenbait herrikoetan ere sartu zen Guardia Zibila.

Inbentarioak gauzatzeko atzo jakinarazitako autoak jardunbidean dauden hiru aldeei (Estatuko abokatuak, Fisikaltzak eta legez kanpo jarritako alderdiak) hilabeteko epea ematen diete beharrezko ikusten diren alegazioak egiteko. Salak herriko tabernen lokal, ondasun higigarri eta tresneriaren likidazioa erabakiz gero, erabaki hori eraginkorra izan dadin ematen da aurretik alegazioak egiteko epea.

Bestalde, Espainiako Auzitegi Nazionalako epaile Baltasar Garzoni herriko tabernekin «Batasunaren bidez ETA finantzatzeko» zutela adieraz dezakeen informazio guztia bidal diezaioala eskatu dio Gorenak.

## iragarki laburrak ▶

## LANA

**Gidariak.** Plaza libreak betetzeko behar dira: Eusko Jaurlaritzan, udaletan eta erakunde publikoetan.  
943 31 37 82.

**Harreragileak,** administrari laguntzaileak behar dira erakunde publikoetan.  
943 31 37 82.

## iragarki laburrak ▶

## SALGAI

**Autoa.** BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 km liburuarekin. 18ko lllantak eta tetxua. Egoera oso onean. 14.000 euro. Telefonoa: 943 65 41 43.

**Autoa.** Renault Clio autoa salgai. 80.000 km ditu. 5.500 eurotan. Telefono zenbakia: 635 20 52 53.  
**Egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen dute. 615 75 57 62.

**TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Eztabaida.** Gaztetxeak azkenaldian ixten ari dira. Eskualdeko azkenekoa Villabonan. Zergatik itxi nahi dituzte?

OSASUNA ▶

# Gripeari aurre eginez

Hilaren 16an hasi zen eskualdean gripearen aurkako kanpaina eta abendura arte egongo da martxan

MADDI SOROA

Gripea berriro dator, jarri txertoa lelopean, jarri zen abian hilaren 16an gripearen aurkako kanpaina eskualdeko anbulategietan. Abenduaren 1era arte, ordea, gripeari aurka egiteko txertoa jartzeko aukera izango da.

Aurtengoan, ohi baino beranduago hasi da txertaketa kanpaina, izan ere, laborategiek arazoak izan zituzten txertoaren osaketa zuzena egiteko. Arantxa Sarriegi, Ibarako erizainak azaldu bezala, «hiru birus mota ditu txertoak, horietan bortitzenak ez zuen hedatzea lortu, horregatik, atzeratu da kanpaina».

Sarriegik azaldutakoaren arabera, «bi arrisku talde daude, 65 urtetik gora dituztenak eta gaixo kronikoak edota diabetikoak direnak». Beraz, bi arrisku talde hauei txertoa jasotzea gomendatzen zaie.

Gripearen aurkako txertoaren zergatiari dagokionez, «gure gorputzeko denfentsak indartu eta gripeari aurre egiteko gorputza martxan jartzea», dela helburua azaldu du Sarriegik. Modu honetan, «antigorputzak sartzen dira gorputzean eta honek gripeari aurka egiten laguntzen du».

Txertoak eraginkortasun handia du, baina ez da erabatekoa, horregatik, komenigarria izaten da txertoa jasotzea.



Tolosan egindako gripearen kanpainako arriboko irudia. MADDI SOROA

## ▶ NORA ETA NOIZ JOAN?

Hona hemen, herriz-herriz non eta noiz jarriko den gripearen aurkako txertoa. Beharrezkoa da alde zuzeneko izena ematea, zenbat txerto beharko diren jakin dezaten.

**Abaltzisketa** ▶ 943 65 32 12 telefono zenbakira deitu eta txertoa hartzeko txanda hartu behar da.

**Aduna, Amasa, Villabona, Zizurkil** ▶ Aste honetan alde zuzeneko ordua eskatu gabe joan daiteke Villabonako anbulategira. Datorren astetik aurrera alde zuzeneko eskatu behar da ordua, 943 00 69 70 zenbakian. 10:00etatik 16:00etara jaso daiteke txertoa. **Albiztur** ▶ 943 65 32 12 telefono zenbakira deitu eta txanda hartu behar da. **Aldaba** ▶ Txanda hartu behar da 943 65 32 12 telefono zenbakian. **Alegia** ▶ 943 65 32 12

telefono zenbakira deitu eta txanda hartu behar da.

**Alkiza, Anoeta, Hernialde** ▶ 10:30etik 14:00etara dago aukera txertoa jasotzeko Anoetako osasun zentroan. Aurretik deitu behar da ordua hartzeko 943 65 23 39 zenbakira.

**Alto** ▶ 943 65 32 12 telefono zenbakira deitu eta txanda hartu behar da.

**Amezketza** ▶ 943 65 32 12 telefono zenbakira deitu eta txanda hartu behar da.

**Areso** ▶ Gaur eta hilaren 31ean izango da txertoa jartzeko aukera Aresoko konsultorioan. Hala ere, Leitzako osasun zentroan hartu behar da txanda alde zuzeneko, 948 51 08 00.

**Asteasu, Larraul** ▶ 11:00etatik 12:00etara dago aukera txertoa jasotzeko Astesuko osasun zentroan. Txanda eskatzeko 943 69 24 23 zenbakira deitu behar da.

**Bedaio** ▶ Txanda hartu behar da 943 65 32 12 telefono zenbakian.

**Belauntza** ▶ Azaroaren 8an, 10:00etatik aurrera. Bestela Ibarako anbulategian txanda hartu 943 67 24 11 telefono zenbakian.

**Berastegi** ▶ Eguneroko azaroaren 30era arte. Bestela Ibarako anbulategian txanda hartu 943 67 24 11 zenbakian.

**Berrobi** ▶ Asteazkenero jaso daiteke txertoa 08:45etik 11:00etara herriko udaletxean.

**Bidegoian** ▶ 943 65 32 12 telefono zenbakian txanda hartu beharra dago alde zuzeneko.

**Elduain** ▶ Gaur, 12:00etatik aurrera. Alde zuzeneko txanda hartu behar da 943 67 24 11 telefono zenbakian.

**Eldua** ▶ Urriaren 26ean, 12:00etatik aurrera. Txanda hartu behar da 943 67 24 11 telefono zenbakian.

**Gaztelu** ▶ Urriaren 26an, 12:00etatik aurrera. Bestela, 943 67 24 11 telefono zenbakira deitu eta txanda hartu bertan.

**Ibarra** ▶ Eguneroko, abenduaren 1era arte. 943 67 24 11 zenbakian txanda hartuta.

**Ikaztegieta** ▶ 943 65 32 12 zenbakian txanda hartu beharra dago.

**Irura** ▶ Astelehenean, asteazkenean eta ostegunetan 9:00etatik 11:30era, eta asteazkenean eta ostiraletan, 11:30etatik 14:00etara. Alde zuzeneko ordua eskatzeko deitu 943 65 23 39 zenbakira.

**Leaburu** ▶ Urriaren 26an, 09:45etik aurrera. Bestela, 943 67 24 11 telefono zenbakian txanda hartu behar da alde zuzeneko.

**Leizta** ▶ 08:00etatik 10:00etara osasun zentroan alde zuzeneko 948 51 08 00 zenbakian txanda hartuta.

**Lizartza** ▶ Eguneroko, azaroaren 30era arte. 943 67 24 11 telefono zenbakira deituta ere txanda hartu daiteke bertan. **Orendain** ▶ 943 65 32 12 zenbakian txanda hartu beharra dago.

**Orexa** ▶ Urriaren 25ean, 12:00etatik aurrera. Bestela, 943 67 24 11 zenbakian, txanda hartu daiteke.

**Tolosa** ▶ Tolosako anbulategiak bi ordutegi eskaintzen ditu gripearen aurkako txertoa jartzeko: batetik, 13:00etatik 14:00etara; bestetik, 16:00etatik 17:00etara. Hala ere, alde zuzeneko txanda hartu behar da 943 00 68 00 telefono zenbakian.

**Txarama** ▶ Gaur, 09:45etik aurrera. Bestela 943 67 24 11 zenbakian txanda hartu. **Ugarte** ▶ 943 65 32 12 zenbakira deitu eta txanda hartu behar da.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Gure Txokoa eta Sahara bizi Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatuta, *Frontoitik eskolara, Tolosatik Saharara* jaialdia izango da Beotibar pilotalekuan saharar eskolen alde, bihar, 19:00etan. Sarrera, 6 euro.

**Ibarra.** Ipuin kontaketa saioa eskainiko du Saioa Lur Kortak 4 eta 9 urte bitarteko haurrentzat, 17:30ean, liburutegian.

**Tolosa.** Batxilergoko 1. eta 2. eta DBHko 4. mailako gurasoentzat hitzaldia, bihar 19:00etan, institutuko 2. solairuan. Gaia: *Nerabeen dauden gazteen ezaugarriak*.

**Tolosa.** Abesbatza Lehiaketako sarrera solteak salgai daude TEEK (CIT) Emeterio Arrese kalean 2 duen bulegoan.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Maria Rosario Ormazabalaren koadroen erakusketa azaroaren 5era arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.

**Tolosa.** *Esperientziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

**Tolosa.** *Destambul kolorek, soinuk, zaporek* jardunaldien baitan, *Topaketa* erakusketa Leidor aretoan azaroaren 12a bitarte, eta Fronton jatetxean azaroaren 17ra arte.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Areso.** Goizueta, F. Loidi Etxea. 112.  
**Tolosa.** Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

**IRRATIA**

**Txolarre irrati**  
 (107.5, 101.2 FM)  
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Jose Landarekin, Hitzaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
 20:00-21:00. *Goiko eskolatik betti*.  
 21:00-22:00. *Izarrak eta ilargia*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Arrain-ontzia Oria ertzean

**TOLOSA ▶** Zerkausia kontzertuetarako leku egokia dela erakutsi du Tolosako Musika bandak larunbateko emanaldi jendetsuan



Ezkerrean Tolosa Musika Banda emanaldia eskaintzen. Eskuinean, Zerkausira larunbatean gerturatu zen jendetza ikusten da. ESTI EZEIZA / HITZA

**JOXEMI SAIZAR**

**M**ota desberdinetako inaugurazioak izan ditu Zerkausi berriak iraillaren 13tik hona: ofiziala agintariekin, herritarra pintxojale amorratuekin, garga-dozaleena hiru solairuak lepo betez... Larunbatean beste bi izan zituen: goizean base-rritar, perretxikuzale eta sukaldariena eta arratsaldean inaugurazio musikala.

Hilabete bateko epean hirugarren aldia zen Tolosako Musika Bandak bertan jotzen zuela. Aurrekoak inaugurazio ofizialean eta garagardo azokan izan ziren. Oraingoan eronka handia jarri zion bandak bere buruari: *Las playas de Rio*

obra Oria ibaiaren ertzean arrain-ontzi baten barruan jotzea. Izan ere, arrain obserbatzaile eta obserbatuak sentitzen ginen musikariok kristalezko kaiolaz inguratuta.

Dimitri Shostakovich, Jesus Guridi eta beste konposatzaile batzuk ez zuten etortzerik izan (Zorro bere maskararekin ere espero zitekeen azaltzea bere omenezko piezan), baina *Canario* nekazaina han zen, Tolosari eskaini dion pasodoble berriaren estreinaldia entzuteko prest.

Bandarako konposatu duen seigarren pieza da (Tolosakoak denak estreinatu ditu orain arte) eta ofizioa ikasten ari dela dirudi. Munduko gizonik zoriontsuena zen musikari

hernaniarra eta bandakide guztien lana ederki eskertu zuen.

Jendearen erantzuna ere txalotzekoa da. Leku berriaren nobedadeak entzule asko erakarri zuen Zerkausira, une berean Tolosan bertan beste bi ekitaldi garrantzitsu ere izan arren eta tabernarik izan gabe bertan. Jarritako ehun eserlekuak motz gelditu ziren kontzertua hasi baino lehenago. Bandaren aurrealdean, alboetan eta atzealdean kokatu ziren ikus-entzule interesatuak.

Eta proba musikalarren emaitza ezin hobea izan zen: musikariok ondo entzun genituen gure kideen doinuak eta entzuleek ezin hobeto, ondoren egindako zitzuten komentarioen arabere-

ra. Bandaren atzean jarritakoek ere ondo entzun omen zuten, eta azkeneko lerrotik ere ondo baino hobeto entzuten omen zituzten flauta eta oboe bakarariak *El Caserio* obran.

Beraz, neguko kontzertuetarako (berokuntza sistema ere badagoela ez da ahaztu behar) leku ezin egokia bilakatu da Zerkausia eta bere itxura erdi zabalik. Beste emanaldi mota batzuetarako probaren zain gelditzen gara orain. Hurrengo ipuin kontaketa bertan egitera gonbidatzen dugu hemendik Haur Liburutegia. Eta magia saio baterako ere egokia izango litzateke agian. Animatzen al da Ezpeleta ostalaritza elkarre berrira magia jaialdia berpiztera?

**AGURRAK ▶**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tartea

**Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**